

# SEXU ANIZTASUNARI ATERPEA MEXIKON

Casa Frida, babesa eta duintasuna pandemia garaian are zaurgarriagoa den LGTBI komunitatearentzat

Casa Frida ezagutu baino lehen, Alex Navarrok uste zuen harre-  
ra etxe guztiak hotzak eta desa-  
tseginak zirela. LGTBI komuni-  
tatearentzat sortutako babes-  
lekura iritsi eta hiru astera,  
eskertua sentitzen da larrial-  
dian sortu zen elkarte zibil ho-  
rrekin, mehatxuak eta erasoak  
jasan arren, zutik jarraitzen  
baitu. «Babesleku bat leku  
itsusia dela imajinatzen duzu,  
lurrean lo egingo duzula man-  
ta batekin, soberakinak eman-  
go dizkizutela jateko. Hona  
iristen zarenean, aldiz, sekula-  
ko arreta jasotzen duzu eta  
ezuste handia izaten da, one-  
rako», adierazi du Navarrok.

2020ko maiatzean ireki zi-  
tuen bere ateak Casa Frida ater-  
peak, Mexiko Hiriko San Pedro  
de los Pinos auzoan. Herrialdea  
astintzen ari zen covid-19aren  
larrialdiaren erdian kalean  
edota egoera zaurgarrian zeu-  
den LGTBI komunitateko kide-

JENDARTEA / GAUR8

Mexikon LGTBI komunitateak babesgabetasun  
egoera bizi du. Gazte askok goiz alde egin behar izaten  
dute etxetik, beren sexu identitatea modu askeagoan  
bizi ahal izateko. Berez latza den egoera dezente  
okertu da pandemiarekin. Horregatik, arnasa, babesa  
eta duintasuna eskaintzen diete Casa Frida aterpean.

ei laguntzea izan da hasieratik  
elkartearen egitekoa.

Hasieran, gertuko elkarte zi-  
bil batek utzitako gune batean  
atundu zuten aterpea. Eremua  
akaso ez zen era horretako  
proiektu baterako toki egokie-  
na, baina gunea egokitu eta  
martxa onean joatea lortu zu-  
ten. Baina 2020ko abuztuan  
Casa Fridako bultzatzaile eta  
erabiltzaileei eraso egin zieten  
eta heriotza, bortxaketa eta  
desagertze mehatxuak jaso zi-  
tuzten.

Egoera horren ondorioz, el-  
karteak leku berri batera joan  
behar izan zuen. Hartara, fis-  
kaltzaren aurrean salaketa bat

jarri zuten eta etxe berri bate-  
ra aldatu ziren. Hasiera batean  
bertan urtebetez egotea espe-  
ro dute, epe horretan errenta  
ordaintzea ahalbidetuko dien  
diru bilketa birtual arrakasta-  
tsu bat egin ahal izateko.

Orain arte Casa Fridak LGTBI  
komunitateko 70 pertsona  
baino gehiago babestu ditu,  
bereziki 20 eta 25 urte bitarte-  
ko gazteak. Bertako arduradu-  
nek azaldu dutenez, Mexikon  
oso ohikoa da LGTBI gazteek  
oso goiz etxetik atera behar  
izatea, beren nortasun sexuala  
askeago bizi ahal izateko.

Gazte horien genero orien-  
tazioa edo identitatea dela-eta

etxetik kanporatuak izan dire-  
nei babesa eskaintzen die ater-  
peak. Bertako zuzendarien hi-  
tzetan: «Oinarrizko hiru  
zutabe eskainiz. Lehen, etxea  
eta segurtasuna eskaintzea da,  
oinarrizko zerbitzuak ematea;  
bigarrena, programa psikoso-  
ziala eta osasun publikoko zer-  
bitzuekiko lotura eskaintzea;  
eta, hirugarrena, berriz, bana-  
ka lantzen den bakoitzaren bi-  
zi proiektua da, bidean pilatu  
diren oztopo guztiak gainditu  
ahal izateko».

**BIZITZARI MODU SEGURUAN HELDU**  
Casa Fridara iristen direnei be-  
ren bizitzari modu seguruan  
heltzeko aukera eskaintzea da  
asmoa. Batez besteko egonal-  
dia 90 egunekoa izaten da. Epe  
horretan esku hartze desberdi-  
nak egiten dira erabiltzaileei-  
kin, independentzia ekonomi-  
koa lortzeko, adibidez. Familiakoen eta egoiliarren ar-  
teko bitartekaritza prozesuak  
ere bultzatzen dira, bi alde-  
en arteko gerturatzea eta adiski-

Beheko irudietan, Casa  
Fridaren logoa eta  
bertako ekintza baten  
argazkia. Alboko  
orrialdean, sexu  
aniztasunaren aldeko  
manifestazioa Mexikon.  
GAUR8





detzea lortzeko. Hala ere, bi-tartekaritza horiek egin eta emaitza onak lortzea ez da oso ohikoa izaten.

Casa Fridako egonaldiari egoiliarrek eta boluntarioek antolatutako tailer eta jarduerak laguntzen diote. Horiek era askotakoak dira: arte eskolak, ingelesa edo jolas jarduerak, itxura aldaketak...

«Ez da erraza izan, urtebete daramagu pandemia honekin eta itxita egotea zaila da, are zailagoa egoera zaurgarrian daudenentzat», azaldu du Francisco Mendiolak, Casa Fridako koordinatzaileak.

Mendiolak gertutik bizi izan ditu etxe horretan egon diren pertsona guztien egonaldiak. Erabiltzaile bakoitzak elkartera hurbiltzen denetik joaten denera arte izaten duen aldaketa nabarmenarekin txundituta dagoela aitortu du. «Gure mezua argia da: sexu aniztasunarentzako espazio segu-

ruak eraikitzen jarraitzea. Aniztasunarekiko zor historikoa dago, benetako abandonu instituzionala egon baita eta baitago, eta inork ez du zor hori ordaindu nahi izan. Horregatik, gizarte zibileko erakundeek aurpegia eman behar dute eta egoera hobetzeko lan egin. Askotan, zero baliabiderekin». Bide horretan, proiektua donazioen, jardueren eta artikuluen salmentaren bidez modu birtualean finantzatzea erdietsi dute.

**Casa Fridak orain arte 70 pertsona baino gehiago babestu ditu, bereziki 20 eta 25 urte bitarteko gazteak. Mexikon ohikoa da LGTB gazteek oso goiz etxetik atera behar izatea**

**«Gure mezua argia da: sexu aniztasunarentzako espazio seguruak eraikitzen jarraitzea. Aniztasunarekiko zor historikoa dago, benetako abandonu instituzionala egon baita»**

#### BIDE BERRIA ABIATU

Alex «aingeru batek» salbatu zuen. 50 peso (bi euro inguru) eta Casa Fridako telefono zenbakia eman zizkion. Horrela iritsi zen aterpera. Ordurako, Alexek bortizkeriaz beteriko bere etxea atzean utzia zuen eta motxila pisutsua zerman bizkarrean; bahiketa bat, sexu abusuak, suizidio saiakera bat, eta bazekien zer zen kalean lo egitea.

«Ni Guanajuatetik nator, alkoholismoa, drogazaletasuna eta abusu fisiko eta psikologikoa beti nagusi izan diren familia batetik. Gurasoekin bizi nintzen. Baina egun batean aitak jipoitu egin ninduen eta sudurra hautsi zidan. Orduan erabaki nuen nire maleta hartu eta etxetik alde egitea», kontatu digu Alexek.

Poltsikoan 450 peso (19 euro) zituela, Mexiko Hirirako autobus txartel bat erosi zuen, aukeren bila, baina pandemia-

ren aurkako neurriak zirela-eta itxita zegoen hiri bat aurkitu zuen.

Kontatu duenez, bere gurasoekin zituen arazo nagusiak bere orientazio sexuala, bere egoera serologikoa (GIBarekin bizitzea) eta bizi duen depresioa ziren. Orain Alexek bere bizitzari epe laburrean begiratzeko dio eta bere asmoen artean dago txakurren estilista eta bideobloglari gisa egiten duen lanari berriro ekitea, GIBari buruzko informazioa ematen jarraitzeko, nahiz eta jakin badakien oraindik ere barne prozesu bat geratzen zaiola bukatzeko.

Bultzatzaileen hitzetan, «igoeraz eta jaitsieraz» betetako esperientzia izan da Casa Frida. Hala ere, eutsi egiten diote. Interesa duenak janari, jantzi eta dohaintzekin lagundu dezakeela gogorarazi dute. Sare sozialen bidez jar daiteke harremanetan haiekin.